
Idazlanak markatzea eta kalifikatzea

Atalak metodoa < Joseba Butro

- E - M - Z ardatzak
 - Parametro zehaztuak
 - Z ardatzerako formula eta taula
 - Z kalifikazio objektiboa eta proportzionala
-



1 Metodoaren sintesi orokorra

Ardatzak (1) **Edukia, Moldea eta Zuzentasuna** (E - M - Z). Guztira, 10 puntu.

Edukia	2,5	Atazan eskatzen denari erantzunez, informazio corpus bat: > ideiak, informazioak, datuak, argudioak, adibideak...
Moldea	2,5	Edukia azaltzeko erabilitako baliabideak (+ aurkezpena): > estiloa eta erregistroa: naturala, ulergarria, pertsona (3.a, gu / ni, zu?)... > testu egituratua (lerrokadak), kohesionatua (lokailuak, antolatzaileak), landua...
Zuzentasuna	5	Ortografia > hitzak, letra larriak, zenbakiak, datak, zeinuak... Sintaxia > deklinabidea, aditza, komunztaturak, egiturak... Lexikoa > erdarakadak, trakeskeriak...

Markak (2) Bereizita **ortografikoak / sintaktikoak** eta **arruntak** (0,5) / **larriak** (1)

Markak	Esanahia / Balioa	Adibideak	e	kal
O R T O G R	Akatsa: hitzak, zeinuak, zenbakiak, siglak... (0,5)	eskeini daitekela / gauzak, ... / 202-an	1 - 1,5	5
	Akats larria : hitz arruntak, letra larriak... (1)	saia da ongi ezatea / gipuzkoan	1,55	4,75
	Jada markatua: errepik. (ø)	eskeintzen dutera ordea ez da	1,6 - 2	4,5
S I N T A X	Akatsa: sint., lex... (0,5)	garapenaren bidean / beste egunean	2,05	4,25
	Sintaxi akats larria (1)	ni uste dut / gaudelaren ustea	2,1 - 2,5	4
	Ez txukuna: egit., lex... (ø)	arrisku osoan / beranduago esan zion	2,55	3,75
	Zati seinalatua: egitura...(ø)	ez dago [zertan esan beharrik]	2,6 - 3	3,5
Lerrokada aldaketa (0,5)	Zerbait falta da (0,5) Zer? Ene!	3,05	3,25	
			3,1 - 3,5	3
			3,55	2,75
			3,6 - 4	2,5
			4,05	2,25
			4,1 - 4,5	2
			4,55	1,75
			4,6 - 5	1,5
			5,05	1,25
			5,1 - 5,5	1
			5,55	0,75
			5,6 - 6	0,5
			6,05	0,25
			6,1 - >	0

Akatsak (2) Akats erdiak (arruntak) eta osoak (larriak)

- > Ortografian, akats errepikatuak (hitz berbera), behin zenbatuko dira. Zeinuenak, beti. Sintaxian, denak kontatuko dira (— eta ==), errepikatuak izan arren.
- > Balioak: akats **arruntek**, puntu erdi (0,5); akats **larriek**, puntu osoa (1). Adibidez: 17 akats arrunt (8,5) + 6 akats larri (6) = 14,5 akats guztira.

Zuzentasuna (2) Formula baten bidez

Akats kopurua *bider* indizea *zati* hitz kopurua. Horrela lortuko dugu eskalako emaitza (**e**) eta, ondorioz, zuzentasunari dagokion kalifikazio (**kal**) **objektiboa** eta **proporzionala**.

$$\frac{\text{Akats kopurua} \times (\text{indizea})}{\text{Hitz kopurua}} = e > \text{kal}$$

Adib. $\frac{14,5 \times 100}{314} = 4,6 > 1,5$

Adibidea: 314 hitz. Akats kopurua (erdiak + osoak): 14,5. Indizea, 100 (erdikoa). Indizea zenbat eta altuagoa (zailagoa) izan, orduan eta zorrotzagoa kalifikazioa. Formula aplikatu ahal izateko, idazlaneko hitz kopurua jarrita eduki behar dute ikasleek.

Hitzak 314
Akatsak 14,5

Gaınditzeko baldintza E - M - Z ardatzetako batean ere ezin da **0** atera. Hori gertatuz gero, gehienez: 4.

ZUZENKETA: hezkuntza arautuan, hori da azken lana, egindakotik ikasi eta hurrengoak txukunago idazteko. Behin idazlana markekin eta E-M kalifikatuta, hurrengo probetan **zuzentasun maila hobetzeko**, ikasleei berridazteko aginduko zaie, markatutako **akatsak zuzentzeko**; alegia, idazlana berdin-berdin idatziko dute berriz, baina akatsik gabe; irakasleak lagundu beharko die ulertzen ez dutena argitzen (markaren batzuk). **Berreskurapen** gisa erabil daiteke, zuzenketari puntuazio bat emanez (adib. 2 puntu; gaizki zuzendutakoek penalizazioa). Bi idazkiak erkatu eta Zn meta daitezke puntu lortu berriak, baina beti ere guztira gehienez 5.

1 Aplikazioa: DBH bigarren zikloan nahiz goragoko mailetan (Batxilerrak, Lanbide Hezkuntza, Unibertsitatea...)
2 Aplikazioa: DBH bigarren ziklotik gora. B2, C1 mailetan.

2 Ardatzen zehaztapenak

EDUKIA

Edukiaren kalifikaziorako (gaitasun soziolinguistikoarekin lotua), honako parametroak:

1 Adierazpen kopurua (%40 = 1) 2 Adierazpenen garapena (%60 = 1,5)

E +/-	1	1,0	Ea eskatutakoa bete den (luzeran, hitz kopurua): informazioak, datuak, argudioak, adibideak...
	2	1,5	Ea gaiarekiko alderdiak zenbat landu diren: planteatu, sakondu (iritziak), adibideekin hornitu...

Eta, kalifikazioak ipintzeko orduan, eskala arruntena 1-10 izaten denez, hona 2,5 puntuen baliokidetzak:

E / M		0,5		1		1,5		2		2,5
>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

MOLDEA

Moldearen kalifikaziorako, ondoko parametroak, hiru bloketan berezita. Gaitasun diskurtsiboan kokatzen dira; alegia, mezua egoki transmititzeko gaitasunetan.

1 Estiloa/Erregistroa (%20 = 0,5) 2 Artikulazioa/Kohesioa (%40 = 1) 3 Baliabideak (%40 = 1)

M +/-	1	0,5	Ea hizkuntza malgutasunez eta estilo naturalean erabili den, irakurleari ere egokitua.
			Ea adierazpenak erregistro egokian eman diren: adizkiak 3. pertsonan? Ala 1. edo 2.ean?
2	1,0	Ea testu antolatua edo artikulatua lortu den: ideia nagusiak, osagarriak, adibideak, ondorioak...	
		Ea testu egituratua eta kohesionatua lortu den: lerrokadak, zeinuak, antolatzaileak, lokailuak...	
3	1,0	Ea egitura konplexuak, aberatsak, zehatzak... eraiki diren, sintaxi baliabide desberdinak erabilia.	
		Ea baliabide lexiko egokiak, aberatsak, zehatzak... erabili diren, testu landua sortzeko.	

ZUZENTASUNA

Zuzentasunaren kalifikazioa (gaitasun linguistikoa) formula batek emango du, baina egoki aplikatu ahal izateko, akatsetan oinarritzko bereizketa egin behar da: ortografia / sintaxia.

Z	1	O r t	Hitzen idazkera, zenbakiena, datak, orduak, laburdurak, siglak, marrak, letra larriak...
			Zeinuak: komak, puntuak, puntu eta koma, bi puntuak, galdera-markak, parentesiak, gidioiak...
2	S i n	Deklinabide mailakoak, adizkiak, egiturak, komuntzadurak...	
		Perpausetako elementuen kokapena eta lexikozko egokitasuna (erdarakadak, trakeskeriak...).	

Eta, bestetik, arruntak / larriak bereizketa, akats erdi (0,5) edo oso (1) moduan kontatu ahal izateko (Ikus markak).

Z	O r t		Arruntak: hitzen idazkera, zenbakiak, datak, orduak, laburdurak, siglak... eta zeinuak.
			Larriak: letra larriak / xeheak gaizki, hitz arrunt-arruntan idazkera gaizki...
S i n		Arruntak: bereziki ahozko moldeak eraginak (hedatuak), deklinabidea, adizkiak, egiturak...	
		Larriak: komuntzadura mailakoak (dek, ad, sint) eta egitura mailako arauen aurkakoak.	

Horiez gain, akats moduan **zenbatuko ez diren** marka hauek egin daitezke: **ortografian**, akats errepikatuen kasuetan (hitz berbera), uhin txiki bat ; **sintaxian**, uhin jarrai bat adierazpen ez txukunen azpian.

Azkenik, zeinu osagarriok ere erabil daitezke: kakoak [] zati bat mugatzeko (barnean eduki dezakeen akats marka hobeto uler dadin); zerbait falta dela adierazteko (lokailua, adizkia...) eta akats gisa azpimarra daiteke (arrunta / larria); lerrokada konpontzeko (aurrekora edo hurrengora) seinaltuaz: ; edo testuaren ertzetan galdera (mezua ulergaitz) edo harridura (zerbait deigarria).

- **INDIZEA.** Zuzentasuna *graduatzeko* orduan indize leunagoa edo gogorragoa erabil daiteke. Zein aplikatu? Indizea mailaz maila zorrotzago jartzen joan daiteke edo maila berean probaz proba zorrotzu. **100** da erreferentziatzko indizea. Hortik beherantz, leunagoa da; gorantz, zorrotzagoa. Hori zehazteko kontuan hartu behar dira ikasmaila eta ikasleen euren hizkuntza maila ere. **Proposamena:** DBH 2. zikloan > 90-95-100 / Batxiler mailetan, B2 > 100-105-110 Hezkuntza araututik kanpo (C1 mailako azterketak, Unibertsitate mailak...) > 105-110 / 115-120 Indizea bezain garrantzitsua da kalifikatzailearen zorrotzasuna, akatsak antzemateko eta markatzeko.